

EHUko IKASLEAK URRIAREN 15EKO PALESTINAREN ALDEKO MOBILIZAZIOETARA BATZEN DIRA

Puede leer la nota en castellano [aquí](#).

Leioa, 2025ko urriaren 13a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseiluak 2025eko urriaren 15erako [etenaldi akademikorako](#) deialdia onartu du unibertsitateko campus guztietan, egun horretan herri palestinarraren genozidioa salatzeke egingo diren mobilizazioen esparruan.

Erabakia Ikasle Kontseiluaren gehiengo kualifikatuak onartu du, Ikasleen Araudiari eutsiz, eta ikasleek beren eskubideak defendatzeko eta beren aldarrikapen eta protesta akademikoak egiteko eskubidea dutela aitortzen du. Indarkeriaren amaiera eta herri palestinarraren giza eskubideen babesa eskatzen duten mobilizazioetan parte hartzea errazteko asmoz deitu da etenaldi akademikoa.

Ikasle Kontseiluak lurralde osoan deitutako mobilizazioak babesten ditu, eta salatu du "Palestinako genozidioa munduaren begien aurrean gertatzen ari dela, inpunitate osoz". Palestinako Osasun Ministerioaren datu ofizialen arabera, 2025eko urrian "67.000 pertsona baino gehiago hil dituzte eta 169.590 inguru zauritu daude", benetako kopurua askoz handiagoa izatea espero den arren, eta horrek aurrekaririk gabeko tragedia humanitaria islatzen du. Kontseiluak gertuko gertaerak ere gogorarazi ditu, hala nola Global Sumud ontzidiaren interzeptazioa nazioarteko uretan baita Nazio Batuen txostenak, "okupazio, apartheid eta genozidio-sisteman" enpresek duten inplikazioa adierazten dutenak ere.

Kontseiluak azpimarratu du ikasleek funtsezko zeregina dutela giza eskubideen, bakearen eta nazioarteko justiziaren defentsan, eragile sozial eta politiko gisa. EHUko Ikasle Kontseiluaren hitzetan, ikasleen mobilizazioek "ikasleok giza eskubideekin eta Palestinako herriarekiko elkartasunarekin dugun konpromisoa" islatzen dute, eta erakusten dute ikasleok "indar gupidagabea izaten jarraitzen dugula bidegabekeriaren eta oinarritzko eskubideen urraketen aurrean".

Deialdi horren bidez, EHUko Ikasle Kontseiluak bakearen, giza eskubideen eta nazioarteko elkartasunaren aldeko konpromisoa berretsi du, eta dei egiten die ikasleei eta unibertsitateko komunitateko gainerako kideei urriaren 15eko mobilizazioetan parte hartzera, espiritu kritiko, bizikidetza eta errespetuarekin.

EHUko Ikasle Kontseilua



Kontaktua:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua